



INGURUMEN IRIZPIDEAK EROSKETEETAN TXERTATZEKO LABURPEN-FITXA:

BULEGOKO PAPEREA

Prestatze-data: 2016

EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA


Landutako dokumentua, ingurumen irizpideak erakunde pribatu eta publikoen erosketa eta kontratazioetan txertatzeko erraztasuna eta zabalkuntza sustatzen duten dokumentu bilduma baten barne hartzen da.

Eskuliburu honen bidez, argibide argiak eta praktikoak eman nahi dira, erosketa eta kontratazio publiko berdearekin lotutako helburu guztiak ahalik eta modu errazenean eta pausoz pauso landu ahal izateko. Horrez gain, etiketa nagusiak berrikusten dira, ingurumenean eragin txikiagoa duten produktu edo zerbitzuak identifikatzen dituztenak. Azkenik, erosketa eta kontratazio prozesuko une bakoitzerako jarraibideak ezartzen dira, prozesua modu arrakastatsuan bukatu dadin.

EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA Eusko Jaurlaritzak, Ihobe Ingurumen Kudeaketarako Sozietate Publikoaren bitartez, burututako laguntza-tresna garrantzitsuena da.

Eskuliburu honek, administrazio publikoko zail guztietan erosketa eta kontratazio publiko berdea zabaltzeko beharrezkoa den informazioa eskaintzen du.

Argitalpenaren testu osoa eskuragarri dago www.ihobe.eus webgunean.





GURE ERABAKIA:

PAPER EROSKETA ETA KONTSUMO IRAUNKORRA

Papera modu iraunkorrean erosi eta kontsumituta, material horrek ingurumenean duen eragina murriztu nahi dugu. Gure erabakia eraginkorra izan dadin, kontuan hartu behar ditugu paperari buruzko kontzeptu batzuk eta papera erosteko eta kontsumitzeko oinarritzko urratsak.



ZER JAKIN BEHAR DUGUN

Papera ingurumen-irizpideak erabilita erosteko eta kontsumitzeko, kontuan hartu behar dira funtsezko alderdi hauek:

Zenbait kontzeptu nagusi

Paper-mota ezberdinak:

- **Paper %100 birziklatua:** berreskuratutako paperaren zuntzez soilik egindako papera.
- **Partzialki birziklatutako papera:** berreskuratutako paperaren zuntzez (%30 baino gehiago) egindako papera.
- **Birziklatu gabeko papera:** egur-zuntzez (%70 baino gehiago) egindako papera.

Paperari buruzko kontuan hartu beharreko ingurumen- eta teknika- alderdiak:

- **Paper-orearen jatorria:** horren arabera, birziklatua ala birziklatu gabea (hau da, baso-ustiapenetik eratorritako zurarekin egindako ore) da papera.
- **Papera zuritzeko sistemak:** oinarrizko kloroarekin, kloroaren deribatuekin edo klororik gabeko prozesuen bidez. Ingurumen-ikuspegitik, kalte gutxien eragiten duen sistema klororik gabekoa da (TCF); ondoren, kloro elementalik gabekoa baina kloratutako beste produktu batzuk erabiltzen dituena (ECF); eta, azkenik, kloro elementalarena (herrialde askotan debekatua dago sistema hori).
- **Paperaren zurtasuna deskribatzeko hiru estandar erabiltzen dira:** distira, zurtasuna eta tonua. Oro har, zurtasun-maila apala (100 ingurukoa birziklatu gabeko paperean; 60-70 bitartekoa paper birziklatuan, ISO 2470ren arabera), eta distira emaila optikorik gabe lortua interesatzen zaigu.
- **Makinen funtzionamendu-bermea eta paperaren iraunkortasuna**

INGURUMEN ZIURTAGIRIAK

- Papergintzari lotutako inaktuak gutxitzeko erarik errezenetako bat da ekoetiketatutako papera erostea. Hauek dira ekoetiketa ofizial garrantzitsuenak:

Aingeru Urdina



Europako Etiketako Ekologikoa





Beltxarga Zuri Nordikoa



Zenbait kontzeptu nagusi

- Basoaren kudeaketa iraunkorraren etiketak ere badaude: FSC eta PEFC etiketak. Paperaren egur-zuntzaren ehuneko jakin bat iraunkorki kudeatutako baso ustiapenetik datorrela bermatzen dute etiketa horiek (baina ez du ematen ekoizpenaren beste ingurumen bermerik).

FSC (Basoa Kudeatzeko Kontseilua)		PEFC (Baso Ziuertagiriaren Sistemak Ikuskatzeko Programa)	
-----------------------------------	---	---	---

- Aipatutako ziuertagiririk (edo erakunde ofizialek emandako antzeko ziuertagiririk) ez duten bulegoko paperari dagokienez, fabrikatzaileak berak egindako logotipoak edo adierazpenak izan ditzake, baina horiek ez dute bermatzen ingurumen-balio osagarriak. Halaber, ez dira bermetzat jotzen "paper ekologikoa" adierazpen orokorra (askotan, ECF papererako erabiltzen da, beste produktu-hobekuntzarik gabe) eta "birziklagarria" inskripzioa.



EROSKETATIK HONDAKINEN KUDEAKETARA BITARTEKO BIDEA

Ingurumen-eragina murriztu dezaketen erabakiak har ditzakegu erosle eta kontsumitzaileok. Besteak beste, galdera hauek egin behar dizkiogu gure buruari:

ZEIN DIRA NIRE BENETAKO PAPER-BEHARRAK?

1. Urratsa. Beharrak

Erosi aurretik, **erabileraren arabera papera zertarako behar dugun aztertzea komeni da:**

- Non erabiltzen dut papera? Zenbat?
- Paperaren kontsumoa murrizteko neurriren bat har nezake? Nola?
- Badago paperik eskatzen ez duen ordezkoko soluziorik?

ZER PAPER-MOTA EROSI?

2. Urratsa. Papera erostea

Behar dugun paper-kantitatea zehaztu ondoren, erosi behar dugun paperak izan behar duen ingurumen- eta teknika-arloko eskakizun maila zehaztea da urrenko urratsa. Eskakizun maila oinarritzkoa edo aurreratua izan daiteke.

- **Eskakizun-maila OINARRIZKOA bada:**
 - ⇒ **1. Aukera. Beltxarga Nordikoa etiketadun papera aukeratu; ezin bada, Europako Etiketa Ekologikoa duena.** Horren ondorioz, ekoizpen-prozesu garbia duen eta kudeaketa iraunkorreko egur-zuntzen eta/edo birziklatutako zuntzen bermatutako gutxieneko edukia duen papera erabiltzen duzu.
 - ⇒ **2. Aukera. Baso-kudeaketa iraunkorraren FSC edo PEFC logotipodun paperak aukeratzea.** Paper horien zuntz-portzentaje handi bat modu iraunkorrean eta/edo legalki kudeatutako basoetatik eta/edo birziklatua izan den zuretik dator (baina ez dute bermatzen ekoizpen-prozesuan hobekuntzak egin direnik).
 - ⇒ Paperaren zurtasun-mailari dagokionez, aukeratu ahalik eta mailarik baxuena, betiere erabilpenaren arabera eta, ahal izanez gero, paper erabat klororik gabea (TFC), kloro elementalik gabearen ordez.
- **Eskakizun-maila AURRERATUA bada:**
 - ⇒ **Aingeru Urdina ziurtagiridun papera aukeratu.** Aukera honekin, paper birziklatua (% 100) erosten duzu, erabat klororik gabea (TCF), eta produkzio-prozesu garbi baten alde egiten. Bestalde, iraunkortasuna eta makinaren (ekipo informatikoak) funtzionamendu egokia bermatuta daude.
 - ⇒ Paperaren zurtasun-mailari dagokionez, aukeratu ahalik eta mailarik baxuena, betiere erabilpenaren arabera.

NOLA GUTXITU PAPER-KONTSUMOA; NOLA IZAN ERAGINKORRAGOA?

3. Urratsa. Papera kontsumitzea

Papera ingurumen-irizpideetan oinarrituta erosteaz gain, kontsumoa kontrolatzea eta, ahal bada, murriztea da helburu nagusia. Paperaren kontsumoa %75eraino murrizten lagunduko dizute ideia hauek:

Paper kontsumoa murrizteko jardunbide egokiak.

- Dokumentua bi aldeetatik fotokopiatzen edo inprimatzen dituzten ekipo informatikoak aukeratu. Horretarako, duplex funtzioa ekipoetan txertaturik egon daiteke, edo osagarri gisa erosi.
- Inprimatzean, orriko bi orrialde inprimatzeko funtzioa hautatu.
- Inprimagailuak, fotokopiagailuak eta faxa partekatu eta zentralizatu.
- Programa eta fitxategi informatiboak erabili, paperezko dokumentuen erabilera murrizteko.
- Edizio digitalera harpidetu, ahal dela, paper-formatuko edizioetara ordeztu.
- Alde bakarretik idatzitako edo inprimatutako orriak apunteak hartzeko berrerabili, ohar-koaderno gisa.

AZKENEKO URRATSA: ZER EGIN ERABILITAKO PAPERAREKIN?

4. Urratsa. Hondakinen kudeaketa

Hondakinak kudeatzeko unea da. Argiak eta errazak dira emaan beharreko urratsak: papera erabili ondoren (bi aldeetatik), bereizi eta utzi gaikako bilketarako edukiontzietan. Horrela, birziklatu egingo dute, hau da, paper birziklatu berria egiteko lehengaitzat erabiliko dute.

Hondakinak behar bezala kudeatzeko **jardunbide egokiak.**

- Papera gaika jasotzeko paperontziak jarri, bai lanpostuetan bai ofimatika-ekipoetatik (inprimagailuak eta fotokopiagailuak) hurbil. Papera ekarri den kartoizko kaxa ere erabili daiteke paperontzitarako.
- Begiratu bereizitako papera gaikako bilketarako edukiontzi urdinera bota den.



INFORMAZIO GEHIAGO...

Lotura interesgarriak

- www.ihobe.eus webgunean egin dezakezu kontsulta, non erabilgarri baitituzu **Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Eskuliburua** (ekipo informatikoei buruzkoa da atal berezi bat) eta **Produktuaren Ingurumen Etiketen Eskuliburua**.
- Halaber, irizpide horiek betetzen dituzten produktuei eta hornitzaileei buruzko informazioa du lhobek, ezarritako irizpideak betetzen dituzten produktu eta hornitzaile berri guztiei irekita dagoena.
- Bestalde, zuzeneko kontsultaren bat egin nahi izanez gero, Ihobe Line telefonora deitu dezakezu: 900 150 864.